



AZTERKETA FUNTZIONALA

1) Definizioa


Azterketa funtzionala proiektu baten hastapenean erabilia izanen da produktu bat sortu (diseinua) edo hobetu beharko delarik. Baitezpadakoa izanen da produktu hau gauzatua izan dadin. Horregatik, **funtzio nagusiak, bigarren mailako funtzioak eta bortxa funtzioak** zehaztu beharko dira. Beharrezkoa izanen da halako zerrendatzea egitea produktuaren ezaugarriak manera egokian finkatuak izan daitezen.

Erabaki baino lehen "nolakoa" izanen den edo zer aterabide hautatuko den, erabiltzailearen edota eskatzailearen iritzia ezagutu beharko da aterabidera urratsez-urrats heltzeko : **proiektua zentzuzkoa izanen da beharra asetzen baldin badu**. Proiektua abiatzerakoan beharrezkoa izanen da beraz beharra, eta **soilik beharra**, adieraztea. Argi eta garbi azaldu beharko da produktuaren diseinua justifikatzen duen eskakizuna. Horregatik, hiru galdera hauek erantzun beharko dira : **nori eskaintzen dio zerbitzua, zeri eragiten dio, zer helbururekin ?**

Trotineta elektrikoaren "mamu adarduna"

Nori eskaintzen dio zerbitzua ?

Zeri eragiten dio ?



Zer helbururekin egina da ?

Baldintza agiri funtzionala edo frantsesez *le cahier des charges fonctionnel - CdCF*, izeneko dokumentuak **bezeroaren beharra** adieraziko du produktuak eskaintzen dituen **funtzioak** eta bete behar dituen **bortxak** zehaztuz.


Olagarro diagramari esker produktuak bere bizitza zikloaren fase batean bete behar dituen zerbitzu funtzioak zerrendatzen dira (fabrikazio, mantentze, erabilpen...).

Zerbitzu funtzioen artean, funtzio hauek bereizten dira :

funtzio nagusiek (*fonctions principales : FP*) adierazten dute zein diren produktuak eskainiko dituen zerbitzuak erabiltzailearen beharrei erantzuteko ("zertarako produktua eginga izan da?"). Ingurumeneko bi elementuren arteko lotura agerian ematen dute produktuaren bitartez.

Bortxa funtzioek (*fonctions contraintes FC*) agerian ematen dute produktuak bete behar dituen baldintzak kanpoko ingurumenari egokitzeko.

Trotinetaren "olagarro" diagrama



Zerbitzu funtzioen identifikatzea

FP1 : erabiltzaileari lurraren gainean ibiltzeko parada eman

FC1 : kanpoko ingurumenaren erasoei buru egin

FC2 : ingurumena errespetatu

FC3 : estetikoa izan

FC4 : autonomia izan

FC5 : poxelukoa ez izan (trabagarri ez izan)